

berriobeiti

Aitzoain // Añezkar // Artika // Ballariain // Berriobeiti // Berriogoiti // Elkartea // Larrageta // Lotza // Oteitza

udalaren osoko bilkura <3-4> udal informazioa <4-7> kultura <7-8> hiritarren arreta <9> euskara <9-10> kirolak <10>



Zendealdia



HERRI BAKOITZEKO BIZTANLE-KOPURUA (2011KO MAIATZAN 31)



UDAL ZERBITZUAK

UDALA
Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti.
Harrera ordutegia: 9:00etatik 14:00etara. 948 30 31 29. **Faxa:** 948 30 27 31. **Web:** www.berrioplano.es ayuntamiento@berrioplano.es

ALBIENTEEN ZERBITZUA
Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti.
618 96 94 55

MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA
Iturribidea, 1. Artika. **Tel:** 948 38 32 54 **Faxa:** 948 38 32 77.
Posta elektronikoa: cultura@berrioplano.es

LIBURUTEGI PUBLIKOA
Maria de Maeztu Kultur etxean. Iturribidea, 1. Artika. **Ordutegia:** 09:00etatik 15:00etara. **Tel:** 948 38 26 22. **Posta elektronikoa:** bibliarc@cfnavarra.es **Katalogoa kontsultatu:** www.navarra.es

UDAL IGERILEKUAK
Nuestra Señora de la Purificación, z/g. Berriobeiti
948 30 38 52. Igerileku estalia eta udako igerilekua

ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA
Ntra. Sra. de la Purificación, 11. Berriobeiti. **Jendearendako zabalik:** 8:00etatik 22:00etara.

KONTSUMITZAILEAREN INFORMAZIOERAKO UDAL BULEGOA
Udaletxeko plaza, 1. Berriobeiti. 948 30 31 29 **Faxa:** 948 30 27 31 **Harrera ordutegia:** hilabeteko azken asteartean, 10:00etatik 13:00etara. Iritsi ahala egiten da harrera. Telefono bidezko harrera ere bai

BERRIOGOITIKO HAUR ESKOLA
Nuestra Señora de la Purificación, 13. Berriogiti. **Telefonoa:** 948 35 15 88

ARTIKAKO HAUR ESKOLA
Leonor Akitaniakoa, 8. Artika.
Telefonoa: 948 21 56 31

UDALA

UDAL BULEGOAK
Jendearendako harrera ordutegia: 9:00etatik 14:00etara

UDAL TEKNIKARIAK
Bisitak: astelehen eta ostegunetan, 9:00etatik 14:00etara
Deiak: astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan, 12:00etatik 15:00etara

IZATEZKO BIKOTEAK
Ordutegia: astelehen eta asteazkenetan, 9:00etatik 14:00etara.

Tasak: agiriak egitea eta izapidetzea.
Ziurtagiriak: 0,70 €. **012-ren bidez eskatzen diren ziurtagiriak:** doan.
Txosten teknikoaren ziurtagiriak: 9,02 €. **Konpultsatzea:** 0,20 €.
Fotokopiak: DIN A-3, 0,15 €. DIN A-4, 0,06 €

ESKUALDEKO HIRI GARRAIOA
901 50 25 03
22-B linea 22-Luzapena Berriogitira

(astelehenetik ostiralera)
Ibilbidea
Yanguas y Miranda, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Gipuzkoako etorbidea Berriozarren, Gipuzkoako etorbidea Aitzoainen, Plazaola industrialdea, Santa Ageda Aitzoainen, Andrelopa Aitzoainen eta Berriogiti.
Maiztasuna
60 minuturo.

16. Linea- Luzapena Berriogitira (asteburuetan)
Maiztasuna
20-24 minutu.
Ibilbidea
Berriain, Noain, Talluntxe industrialdea, Cordovilla, Zaragozako etorbidea,

Yanguas y Miranda, Sarasate pasealekua, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Gipuzkoako etorbidea (Berriozar), Gipuzkoako etorbidea (Aitzoain), Plazaola industrialdea, Santa Ageda Aitzoainen, Andrelopa (Berriobeiti) eta Berriogiti.

14. Linea-Luzapena Artikara (eguneko zerbitzua)
Maiztasuna: Lan egunetan, 55 minuturo. Larunbatetan, 60 minuturo. Igande eta jaiegunetan, 60 minuturo
Ibilbidea: Iruñeko Udala, Arrotxapea eta Luzapena Artikara (Alde Zaharra)

N4 Linea (gaueko zerbitzua)
Maiztasuna: Aitzoaingo mugaraino: 60 minuturo. Berriogitiraino: hainbat bidaia (zehazteke)
Ibilbidea: Iruñea (Sarasate pasealekua), Berriogiti. Berriobeitiko udaletxean, geltokiak kuartelaren aurrean, Ultzamako errepidearen bidegurutzean, Aitzoainen, Berriobeitin eta Berriogitira.

17. Linea
Maiztasuna: Lan egunetan: 20 minuturo. Larunbata eta jaiegunetan: 40 minuturo.

Ibilbidea: Mutiloabeiti (lau geltoki), Mutiloagoiti (4 geltoki), Sadar, Agoitz, Paulino Caballero, Nafarroa Behereko etorbidea, Vianako Printzearen plaza, Yanguas y Miranda, Taconera, Gipuzkoako etorbidea, Sáenz de Oiza, Santa Engrazia, María Viscarret eta Artika Berri.

TAXIAK
Teletaxia (948 351335)

ANTSOAINEKIN MANKOMUNATUAK DAUDEN ZERBITZUAK

ONARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA
Udaletxeko plaza, 1. Antsoain.
948 132207

EZKABA ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA
Mendikale, 1. Antsoain 948 14 82 48

BERRIOZARREKIN MANKOMUNATUAK DAUDEN ZERBITZUAK

ONARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA
Berriozarko etorbidea, 10. Berriozar
948 30 00 07. **Ordutegia:** 9:00etatik 13:00etara, aurrez hitzordua eskatuta

OSASUN ETXEA
Kaleberri, z/g
Telefonogunea: 948 30 94 66
Aldez aurreko hitzordua: 948 30 94 04

FAMILIA PLANIFIKAZIOERAKO ZENTROA
948 30 19 07

MENDIALDEA ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA
Berriozarko etorbidea, z/g 948 309469

DERRIGORREZKO BIGARRIN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA
Berriozarko etorbidea, z/g 948 30 94 05

"FRANCISCO CASANOVA" MUSIKA ESKOLA
Oianondoa, 1. Berriozar
948 30 04 30 / 948 30 18 00

BAKE-EPAITEGIA ETA ERREGISTRO ZIBILA
Rekalde, 8. Berriozar
948 30 08 79 **Harrera ordutegia:** 9:00etatik 13:00etara

KONTZEJUAK

KONTZEJU ADMINISTRATZAILAIA:
José Vidal. **Harrera ordutegia:** 9:00etatik 14:00etara (948 303129)

AITZOAIN: Oronsuspe auzoa, 3.
Kontzejuburua: Teresa Sanz Arroyo

AÑEZKAR: San Andres k/ 6
Kontzejuburua: José Ingelmo García

ARTIKA: San Martzial, 9 (948 38 37 93) **Kontzejuburua:** Miren Nekane Ruano García. **Administratzailea:** Imanol García

BALLARIAIN: San Pedro k/ z/g
Kontzejuburua: José Antonio Gómez Chandía

BERRIOGOITI: Santa Eulalia k/ 47
Kontzejuburua: Arturo Belasco Ortega

BERRIOBEITI: Kale Nagusia, 2
Kontzejuburua: Francisco Javier Díaz Rodríguez

ELKARTE: Purificación k/ 16
Kontzejuburua: José Angel Huarte

LARRAGETA: San Esteban k/ z/g
Kontzejuburua: Amelia Peñalver Hermida

LOTZA: San Joan k/ z/g
Kontzejuburua: José Angel Nuin

OTEITZA: San Joan k/ 6
Kontzejuburua: José María Uribe Oyarbide

PILOTALEKUAK: TASAK

BERRIOBEITI
Gomazko pala, larruzko pala eta frontenisa (948 30 32 00)
Erroldatuak, kontzejuan jaitoakoak eta auzokideekin ezkontutakoak: 10 euro/orduko **Erroldatu gabeak:** 16 euro/orduko **Argia:** 5 euro/orduko.
Ordutegia: astelehenetik ostiralera: 17:00etatik 22:00etara. Larunbatetan: 09:00etatik 12:00etara. Larunbat arratsaldeetan, igande eta jaiegunetan: soil-soilik auzokideendako

ARTIKA
Gomazko paleta eta pilotalekua (630 23 86 85) **Alokairuak:** Auzokide erroldatuak: 4 euro; hiru auzokide erroldatuak eta erroldatu gabeak: 5 euro; bi erroldatuak, eta erroldatu gabeak: 7 euro; auzokide erroldatu batek, eta erroldatu gabeak hiruk: 10 euro; erroldatu gabeak: 15 euro. **Argi-fitxak:** 4 euro/ordua. **Dutxa, aukerazkoa:** 4 euro. **Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 22:00etara. Larunbatetan: 9:00etatik 21:00etara. Igandetan: itxita.



Berriobeitiko herrietako auzokideek badute antzinako argazkiak bidaltzeko aukera, atal honetan argitaratzeko; horretarako, Kultura Zerbitzuarekin jarri behar dute harremanetan. Behin argitara emanda, argazkiak auzokideei itzuliko zaizkie.

ATZERA BEGIRAKOAK. BESTA BERRI EGUNeko PROZESIOA (1959). Irudian Berriobeitiko Korpus Eguneko ospakizuna ageri da. Argazkian José Miguel Huarte apeza (zendua) eta Manuel Pascal eta José Antonio Layana meza-mutilak ageri dira. Herriko hainbat bizilagun palioari eusten azaltzen dira, guztiak ere zenduak: Eusebio Echarte, José Barriain, Pablo Ilundáin, Santiago Simón, Lázaro Larrayoz eta Andrés Iribarren.

Lotzako Aintzirako espezieak, aiez ale

LEZKARI KARRATXINA. Beste zenbait hegazti bezain adierazgarri eta ezaguna ez bada ere, lezkari karratxina hegazti arrunta da eta denborarik gehiena lezkadiaren trinkotasunean ematen du; hortik heldu zaio izena (lezkaria).

Lezkari karratxina ugaria da Lotzako aintziran, eta haren ahaide lezkari arrunta ere bai; betiere, Phragmites lezkadia dagoen inguruan bizi da. Bi espezieek (lezkadi karratxinak eta lezkadi arruntak) kolore oso kriptikoak dituzte, nabarkarak, eta, ezaugarri horri esker, oso ongi ezkututzen dira landaretzan.

Espezia hau aurkeztu nahi dugu, nagusiki bi arrazoi direla medio. Lehenik eta behin, migratzaile aparta delako, Sahara goitik behera zeharkatzen baitu. Espezieko ale guztiak, izan ere, udaberrian, Sahara hegoaldeetik Europara jotzen dute, habia egitera. Nafarroara, apiril erdian iristen da eta, apirilaren bigarren hamabostaldetik maiatzaren lehenera, ugalketan hasten da. 3tik 6ra bitarte arrautza erruten ditu, eta emeak hamalau egunez txitatzen ditu. Hamalau egun geroago, txitak hegan egiteko eta habiatik alde egiteko moduan daude. Arra eta emea arduratzen dira txitak elikatzeaz. Uztailaren bukaeratik irailera bitarte, Nafarroatik eta Europa osotik alde egiten dute.



Espezia lerrootara ekartzeko beste arrazoia da oso zaila dela hegaztia begiz ikustea eta ezagutzea, iheskorra baita. Aldiz, oso erraz ezagutuko dugu haren txio-txio ozena, erlatsa eta zertxobait "matraka"; horrek, beraz, aukera ematen digu espeziea identifikatzeko, begiz ikusten ez badugu ere.

Testua: Gorosti Natur Zientzia Elkarte. Argazkia: Juan Ignacio Déan.

Aintzirari buruzko argibideak nahi izanez gero, sar zaitezke zaleek eta aintziraren lagunek sortu duten blogean.

<http://balsadeloza.blogspot.com/>



HERRITARRENTZAKO TELEFONOA

Herritarrentzako Telefonoaren Harrera zerbitzuaren bidez, badago gestio hauek egiteko aukera:

- > Ziurtagiriak eskatu (katastroa eta udal erroldak, bizitokia, bizikidetzak, ordainagiriaren kopia, etab).
- > Udal argibidea ematen du: zerbitzuak, kultur eta kirol agenda, espedienteak izapidetzea, ordenantzak, zergak, ikastaro eta beka eskaintzak, enplegu deialdiak eta lehiaketa publikoak.
- > Udalekoak ez diren izapideei buruzko argibidea: oinarriko hornidurez (telefonoa, gasa, elektrizitatea eta ura) arduratzen diren enpresak, Nafarroako Gobernu, osasun etxeak eta zerbitzuak, heziketa zerbitzuak, garraio zerbitzuak, aisia eta elkarteak.
- > 012 telefonoaren bidez ere zerbitzuei

buruzko kexak aurkeztu daitezke, iradokizunak egin eta udalarekin zerkusua duten gaiiei buruzko abisua eman.

Nola sartu: Markatu 012 telefonoa. Udalerriatik kanpo deitzen baduzu, telefonoa hauxe da: 948 217012
Ordutegia: asteleheneetik ostiralera, 8:00etatik 19:00etara, eta larunbatetan, 9:30etik 13:30era. Udan ordutegi berbera izanen da.

Deiaren kostea: finkotik: 0,34 euro. Sakelakotik, 0,36 euro, Telefonicareen tarifaren arabera eta denbora-mugarik gabe. Kontsultatu beste operadore batzuk.

> osoko bilkurak laburpenak

OSOKO BILKURA ARRUNTA 2011ko martxoaren 1a

ARTIKAKO KIROLDEGI PISTA

Zinegotzi guztiak parte hartu zuten osoko bilkuran, Udalbatzak 2011ko otsailaren 8ko Informazio Batzordearen irizpena onetsi zuen aho batez. Irizpen horren arabera, Artikako Kontzejuak, Artikako kirol pistaren jabea eta erakunde eskuduna den aldetik, badu hartan ekiteko eta zer erabilera eginen diren zehazteko eskumena eta betebeharrak; era berean, Artikako Kontzejuak badu jarduera-egitasmo bat lantzeko eskumena, zaratak murrizteko mekanismoak ezartze aldera, pertsonen eskubideetan kalterik izan ez dadin eta, horrela, badu eskumena Marta Mendía pistan garatu beharreko jarduera legeztatzeko. Proiektua bi hilabete-ko epean aurkeztu beharko da.

2010EKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEA GKEENTZAKO.

Eguneko aztergai honetan, José Antonio Aquerretak (AVAB) aretotik alde egin zuen, onestekoa zen kontuarekiko bateraezintasuna zuelako. Osoko bilkurak onetsitakoaren arabera, GKEei 45.974 euro (% 0,8) emanen zaizkie, eta talde hauei, berriz, 8.168 euro (% 0,2): Eunate, Ayúdala a Caminar, Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte eta Anfas.

OSOKO BILKURA BEREZIA

2011ko martxoaren 15a

UDALA ETA BERRIOBEITIKO KONTZEJUAREN ARTEKO HITZARMENA KONTZEJUKO FRONTOIA KUDEATZEKO

Aránzazu Algárate (CIB) zinegotziak izan ezik, gainerako guztiak parte hartu zuten osoko bilkuran, Udalbatzak aho batez onetsi zuen Berriobeitiko Udalaren eta Berriobeitiko Kontzejuaren arteko hitzarmena, kontzejuko pilotalekua kudeatzeko.

OSOKO BILKURA ARRUNTA 2011ko apirilaren 5a

AURREKONTU ALDAKETA ARTIKAKO KIROL HIRIKO LANETARAKO

Zinegotzi guztiak parte hartu zuten osoko bilkuran, Udalbatzak aurrekontuetan aldaketa bat egitea onetsi zuen aho batez, Artikako kirol hirira 3. 547.745,87 euro

Osoko bilkurak laburpenak

bideratzeko, finantzabide lotetsia duten gastuen diruzaintzako gerakinaren kontura, lanak gauzatzea bideragarri egiteko.

ARTIKAKO KIROL HIRIKO LANEN ZIURTAGIRIA

Udalbatzak aho batez onetsi zuen Artikako Kirol Hiriko lanak egin izanaren ziurtagiria 747.294,61 eurotan.

LITERATUR LEHIAKETA

Udalbatzak 2011ko Literatur Lehiaketako epaimahaia osaera onetsi zuen. 7 boto izan ziren alde, AAB, NaBai, CP-HK eta Aránzazu Algárate (CIB); 2, kontra (UPN), eta 2 abstentzio, José Manuel Larumbe (CIB) eta AVAB. Hona hemen epaimahaikideak: Castillo Suárez, Mikel Taberna, Ángel Erro, Aránzazu Algárate, euskara teknika-ria eta kultur koordinatzailea.

KULTUR, GIZARTE ETA KIROL DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA

Eguneko aztergai honetan, Alizia Amezgarayk (AAB) aretotik alde egin zuen, aztertu beharreko gaiarekin zuzeneko interesa zuelako. Osoko bilkurak onetsitakoaren arabera, sei kultur, gizarte eta kirol elkarteri 8.989,50 euro emanen zaizkie. 9 boto izan ziren alde (AAB, CIP, NaBai, UPN eta CP-HK) eta abstentzio 1 (AVAB).

OSOKO BILKURA BEREZIA

2011ko maiatzaren 17a

ARTIKAKO KIROL HIRIKO TABERNA ASKALDEGIA ESLEITZEKO PROPOSAMENA

José Manuel Larumbe (CIB) eta Evelio Gil (UPN) zinegotziek izan ezik, gainerako udalkide guztiek parte hartu zuten osoko bilkuran, Udalbatzak Artikako Kirol Hiriko taberna askaldegia zuzenean Iker Fernandezi 6.000 eurotan (BEZa barne) esleitzea onetsi zuen, eskaintzarik hoberena baitzen.

KLAUSULA ADMINISTRATIBO ETA TEKNIKOEN PLEGUA BERRIOBEITIKO IGERILEKUAK KUDEATZEKO

Osoko bilkurak aho batez erabakitakoaren arabera, pleguak onestea hurrengo Udalbatzarako utziko da.

LOTZAKO AINTZIRA. PROIEKTUA

Lotzako Aintzira lehengortzeko proiektuarentzako diru-laguntza Oihan Kudeaketaren txosten baten zain dago. Aurreikuspenen arabera, txostena uda bukaeran egonen da egina. Proiektua, bestalde, 2011ko irailaren 1a baino lehen gauzatu beharko da. 2011ko Aurrekontuen zirriborroan kontusailik bildu ez zenez, Osoko bilkurak gaia mahai gainean uztea erabaki zuen, hurrengo Udalbatzak azter dezan.

LOREGIAK MANTENTZEA ESLEITZEKO PROPOSAMENA

Osoko bilkurak Alkatetzan eskuordetu du Berriobeitiko lorategiak, azpiegiturak, landare-ontziak eta zuhaitzak mantentzeko zerbitzua Ekiloreri esleitzeko ahalmena; kontratazio-mahaiak proposatutako enpresa da.

ARTIKAKO KIROL HIRIKO TARIFAK

Udalbatzak Gesport enpresak proposatutako tarifak errespetatzea onetsi zuen, CP-HK taldeak kontrako botoa eman zuela. Gesport Artikako Kirol Hiria kudeaketaz arduratzen den enpresa da.

BERRIOBEITIKO IGERILEKUAN ABONATU GEHIAGO IZATEKO ERABAKIA, BERRETSIA

Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen 300 abonatu gehiago hartzea Berriobeitiko igerilekuan; plazak erabat libreak izan dira eta izen-ematearen hurrenkeran esleitu dira. Era berean, ez-errolatuentzako abonua dutenek huraxe berritzeko aukera izanen dute, plaza libreak geldituz gero, eta berriz ere matrikula ordaindu beharko dute. Bestalde, Udalak erabakita, 300 abonatu ez dute Artikako Kirol Hiriko igerilekuan sartzeko eskubidea izanen, Berriobeitiko igerilekuko abonua ordainduta.

DIRU-LAGUNTZAK

54.142 euro, GKK eta elkarteentzako

Udalak 45.974 euro bideratu ditu Hirugarren Munduari laguntzeko proiektuetara (BPGren % 0,8) eta 8.168 euro, berriz, (BPGren % 0,2) gizarte xedeak dituzten erakundeetara.

Hirugarren munduko proiektuei emandako diru-laguntzei dagokienez, Asociación Misioneras de María Salus Infirmerun Elkarteak 16.850 euro jasoko ditu; Frantziskotar Txiki Komentuak, 9.000 euro; Territorios Vivos Elkarteak, 7.663 euro; Afrikako Lanbide Eskolei Laguntzeko Elkarteak, 3.900 euro; Ferrer Fundazioak, 3.000 euro; Nous Camins-Nuevos Caminos Elkarteak, 2.961 euro. Bestalde, Asociación Acción Verapaz Navarra eta Organización Navarra para Ayuda entre los Pueblos (ONAY) elkarteek 300 euro jasoko dituzte, eta 200na euro elkarte hauei eman dizkiete: Ospaal, Mugarik Gabe Nafarroa, Bakerako Lankidetzaz Batzarrea, Zuzeneko Elkartasuna, Siempre Adelante Fundazioa, "Na Brasil" Brasildarren Nafarroako Elkarte, Arrosarioko Misiolari Dominikarrak, Madre Coraje Elkarte, Amigo Fundazioa (Nafarroako delegazioa) eta Profesionales Solidarios Fundazioa. Gizarte erakundeei dagokienez, Eunatek, Ayúdale a Caminar Elkarteak, Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak eta Anfasek 2.402na euro jasoko dituzte.

Hitzarmen bat sinatu da, Berriobeitiko pilotalekua kudeatzeko

Berriobeitiko Udalak eta Berriobeitiko kontzejuak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu dute, herriko pilotaleku-kiroldegia kudeaketa arautzeko. Udalak konpromisoa hartu du pilotalekuko erreserbak udal instalazioetatik (igerilekueetatik) izapidetzeko; beraz, udal instalazioetako langileek erreserbak egin eta dirua Berriobeitiko kontzejuari emanen diote.

Erreserbak egiteko ordutegia udal igerilekueetako berbera izanen da; hau da, 9:00etatik 21:30era, asteleheneetik ostiralera; 9:00etatik 19:30era, larunbatetan; eta, 9:00etatik 13:30era, igandeetan. Errolatuek eskaria aurreko hilabetearen 20tik 24ra egin beharko dute (biak barne), eta ez-errolatuek, aldiz, aurreko hilabetearen 25etik 30era. Hainbat eskari badaude ordutegi berarentzako, eskariaren hurrenkerak izanen du lehentasuna. Era berean, Berriobeitiko Udaleko herrietako auzokideek Berriobeitiko herriko auzokideen eskubide berberak izanen dituzte, erreserbei eta prezioei dagokienez (ikusitako tarifak 2. orrialdean).

Udalak, bere aldetik, eta emandako zerbitzuaren ordainez, gutxienez 50 ordu izanen ditu eskura, udal pilotalekuan doako jarduerak antolatuzko. Hitzarmenak urtebeteko iraupena du eta luzagarria da.

Irisarri, beste lau urtez, alkatea



José María Irisarri (AAB) berriro ere Berriobeitiko alkatea izanen da, haren zerrenda (Agrupación Ayuntamiento de Berrioplano) bozkatuena izan baitzen; 613 boto eskuratu baitzituen. Udal berria eratzeko bilkuran, talde politiko bakoitzak (AABk, UPNk, NaBaik, Bilduk eta PPk) bere zerrendaburuari eman zion botoa. PSNk, ordea, boto zuria eman zuen. Hona hemen nola dagoen Berriobeitiko Udala osatua: José María Irisarri (AAB), Francisco Esquiroz (AAB), Rosario Cia (AAB), Yolanda Adot (UPN), José Manuel Larumbe independentea (UPN), Aránzazu Algárte independentea (UPN), Luis Miranda (NaBai), Koldo Fernando Ábrego (NaBai), Iosu Gulina (Bildu), María Eugenia Sagredo (PP) eta Estela Vasco (PSN).



>KIROL INSTALAZIOAK

Artikako K.H.ko lanak hil bukaeran bukatuko dira

Artikako Kirol Hiria uda honetan zabalduko da. IC Construcción eta Acciona Infraestructuras enpresek aldi baterako osatu duten batasuna izan da esleipena jaso duen enpresa eta, aurreikuspenen arabera, kirol instalazioetako lanak ekainaren 30an bukatuko dira. Une honetatik aurrera, izapidetak abiatuko dira Osasun Departamentuko baimena lortzeko, eta kirol instalazioetako probak hasiko dira. Era berean, igerilekuak altzariz, giharrak lantzeko tresnez, aldagelez eta gainerako azpiegituz hornituko dira.

KUDEAKETA, GESPORT-EN KONTURA

Udalak erabakita, Gesport enpresak Artikako kirol instalazioak kudeatuko ditu. Laster, Gesportek webgune bat jarriko du abian, xehetasun guztiak emateko: instalazioen ezaugarriak, abonua, prezioak, ikastaroak eta ordutegiak. Bitartean, argibideak jasotzeko, jo Berriobeitiko kirol instalazioen webera (www.piscinasmunicipalesberrioplano.es); Artikako Kirol Hiriaren atalean, zehazki.

Kontzejuak

>OTEITZA

Oteitza, udako jaietan aitzindaria

Oteitzak udako jaien egutegia irekiko du; ekainaren 23an, gauez, suak piztuko baitira, eta, ondoko egunetan, makina bat ekitaldi izanen dira. Jaiak, ofizialki, ostiralean hasiko dira; hilaren 24an, alegia, afari baten bidez. Egun nagusia 25a izanen da, larunbatean, ohi denez, herri afari jendetsua egingen baita, bai eta dantzaldia ere. Igandean, mezaren ondotik, herri kirolak antolatu dituzte.

Abuztuan, Larragetako eta Berriogoitiko festak ospatuko dira. Larragetan, zehazki, abuztuaren lehen asteburuan; Berriogoitikoak, berriz, abuztuaren akaberan. Egitarauan ez dira herri kirolak, herri bazkariak eta dantzaldiak faltako. Irailean, azkenik, Artika, Añezkar, Elkarte eta Lotzako auzokideen txanda izanen da.

Konpostaje tailerra elkartean

Larrantxa elkarteak eta Iruñerriko Mankomunitateak konpostaje tailer bat antolatu dute herriko elkartean. "Bizitzaz beteriko konpostontzia" izenburuko ikastaroa, zehazki, ekainaren 25ean egingen da, larunbatean, arratsaldeko seietan hasita, eta jende guztiarentzako izanen da.

>AITZOAIN

Zikiro-jatea eta musika, San Migel jaiak ospatzeko

Joan den maiatzaren 7an, Aitzoaingo auzokideek Sanmigelak ospatu zituzten; hau da, herriko bigarren zaindaria. Aurreko urteetan bezalaxe, egunari hasiera emateko, zikiroa prestatu zuten (bildotsa txingarretan erre). Sukaldariak haragia prestatzeaz arduratzen ari zirenean, auzokideek karrikadantza alai egin zuten, trikitixak girotua bazkal tenorea iritsi arte. Bazkaria, bidenabar esanik, Kontzeju Etxean egin zen eta 100 lagun inguru bildu ziren. Gero, musikaz girotutako bazkalondo animatua izan zen.

KONTZEJU HAUTESKUNDEAK

AÑEZKAR

Errolda: 154

Baliogabekoak: 0

Txuriak: 9

Lehendakari: Jose Ingelmo (EZKIKI II), 37 boto

ARTIKA

Errolda: 2072

Baliogabekoak: 33

Txuriak: 82

Lehendakari: Nekane Ruano (INICIATIVA POR ARTICA), 418 votos

BALLARIÁIN

Errolda: 13

Baliogabekoak: 1

Blancos: 0

Lehendakari: José Antonio Gómez (ARRONDOA), 6 votos

BERRIOLANO

Errolda: 450

Baliogabekoak: 32

Txuriak: 39

Lehendakari: Francisco Javier Díaz (Agrupación Independiente de Berrioplano-A.I.B.), 66 votos

BERRIOSUSO

Errolda: 510

Baliogabekoak: 54

Txuriak: 35

Lehendakari: Arturo Belasko (ITURBERO), 79 votos

LOZA

Errolda: 52

Baliogabekoak: 1

Txuriak: 0

Lehendakari: José Ángel Nuin

OTEIZA

Errolda: 46

Baliogabekoak: 1

Txuriak: 0

Lehendakari: José María Uribe

Aitzoainen, Elkarten eta Larragetan berriz ere hauteskundeak izanen dira urria-arazoan, oraingo honetan ez baita behar adina zerrendarik aurkeztu.

>BERRIOBEITI

San Isidro festa giro ederraz bete zuen Berriobeiti

Berriobeitik handizki ospatu ditu Sanisidroak. Izan ere, suziria maiatzaren 13an, ostiralean, 20:00etan bota ondoren, jai giroko ekitaldiak bata bestearen atzetik parrastaka iritsi ziren. Larunbat goizean, esaterako, haurrek puzgarriekin gozatu zuten, eta 14:30ean, ohi denez, herri bazkaria hasi zen; aurtengoan 360 bazkaltiar bildu ziren. Chuchín Ibáñez eta haren mariatxiak arduratu ziren bazkalondoa girotzeaz. Arratsaldean, halaber, beste bi ekitaldi egin ziren: mus txapelketa eta kontzertu bat herriko elizan. Gaeuz, azkenik, zezensuzkoa eta dantzaldia izan ziren. Biharamunean, hasteko, meza eta San Isidro prozesioa egin ziren, eta ondotik, herri kirolak etorri ziren, Perurenatarrak aritu baitziren, aita-semeak; Iñaki eta Iñaxio, alegia. Ondotik, pilotarien partidak ikusteko aukera izan zen: Bengoetxea VII.a-Mitxelena, Mikel Goñi-Martínez de Eulate eta Nagore-Gorriti.

AMETZA ABESBATZAREN KONTZERTUA

Larunbateko ekitaldirik nabarmenetako bat kontzertu bat izan zen; hots, Berriobeitiko Ametza Abesbatzak eta Reusko Voces de la Tierra taldeak herriko elizan, 20:00etan hasita, emandakoa. Bi taldeek, izan ere, harreman sakonak egin dituzte azkenaldi honetan: iaz, izan ere, hemengo abeslariak Kataluniara bisitan joan ziren, eta, oraingo honetan, berriz, katalan kantariak Berriobeitin izan dira; joan den maiatzaren 14an, zehazki. Ametza taldeak bost abesti kantatu zituen, eta, ondoren, Voces de la Tierra abesbatzak, zazpi; besteak beste, Carnavalito Argentino izenekoa, Maoriko kantu tradizional bat eta Kroaziako abesti bat. Kontzertuari bukaera emateko, bi kantu eman zituzten elkarrekin: bata, katalanez, eta, bestea, euskaraz. Ametza Abesbatza, bestalde, ekainaren 4an, Kantabriako Novales herrira joan zen, Voces de Alfoz abesbatzarekin trukaketa-kontzertu bat emateko.



>LOTZA

Txangoak Lotzako aintzirara

Iruñerriko Mankomunitateak aire zabalean antolatutako jardueren artean, joan den ekainaren 5ean, igandean, Lotzako Aintzira bisitatzeko azken txangoa egin zen. Aurtengo udaberrian, guztira, 3 bisitaldi antolatu dira (beste biak maiatzaren 22an eta 30ean egin ziren). Bideari lotu baino lehen, bisitariari azalpen bat eman zitzaion, aintzirako espezieez eta landareez. Jendeak, ondoren, mokozabalak, karnabak, lertxun hauskarak, buztanikarak eta beste hegazti batzuk ikusteko aukera izan zuen, prismatikoz lagunduta eta gida adituek aholkatuta. Halaber, malba zuriak, orkideak eta lirioak ikusi zituzten, guztiak ere naturgune horren apaingarri ederrak. Goizeko irudirik xamurren bat zisne-bikotearen agerpena izan zen, duela hilabete batzuetatik hona aintziran bizi baita; zisneak Pedro Nuinen xede izan dira haren ohiko argazki-ateraldietan.





>OTEITZA ETA AÑEZKAR
Beste urte batzuetan baino jende gehiago San Isidro erromerian

Aurten ere Oteitzak eta Añezkarrek elkarrekin ospatu dute San Isidro eguna; nekazarien zaindaria, alegia. Aurtengoan igande batez izan zen, gainera. Iragarpenek euria agindu bazuten ere, azkenean eguzkia zeruaz nagusitu zen. Aurtengoan, aurreko urteetan baino jende gehiago bildu zen: goizeko 11etan Añezkartik abiatu eta, handik ordu erdira, Oteitzara iritsi ziren, ohi denez meza entzuteko. Elizkizunaren ondotik, eliz gorapean otamena eskaini zen, eta jendea 13:00etan Añezkar aldera joan zen, oinez. Aurten, gauza berri bat egin da, Añezkarko jendeak saiheski-jatea antolatu baitzuen, 14:00etatik aurrera.



>ARTIKA
Mikel Álvarez mendigoizaleak María Domínguez gizarte etxea inauguratu zuen

Duela 25 urtetik gora Artikan bizi den Mikel Álvarez bilbotar mendigoizaleak María Domínguez gizarte etxea inauguratu zuen joan den martxoaren 26an, mintzaldi batekin: "Artikatik Everestera, 7 gailurrak". Mundu zabaleko zazpi kaskorik garrantzitsuenetan izandako ibilerak azaldu zituen: Aconcagua, Elbrus, Kilimanjaro, Mc Kinley-Denali-Alaska, Everest, Vinson-Antartika, Carstensz piramidea eta Kosciusko. Zentro berriak 153,51 m2 erabilgarri ditu, eta honela dago osatua: gela osagarri bat, erabilera anitzeko gela bat, komunak, barra, kontrol eremua eta biltegia. Fermín Vidaurre arduratu da diseinuaz, eta auzokideen kultur eta josteta beharrak asetzeko eraiki da; halaber, herritarrek elkartzeko zentroa da.

> GIZARTE ETA KULTUR IKASTAROAK
2011/2012 gizarte eta kultur ikastaroetan izena emateko epea, irailaren 9tik 14ra

Kultura arloak programaturiko gizarte eta kultur ikastaroetan izena emateko epea irailaren 8tik 13ra bitarte egonen da zabalik. 2011/2012 denboraldirako ikastaroak dira eta Berriobeitiko udalerriko auzokideei zuzenduta daude. Izena Infolokal zerbitzuko 012 telefonoaren bitartez eman beharko da.

Aurtengoan, eskaintza zabala da; eskulanak, emakumeak topatzeko taldea, aerobic, yoga, dantza latindarrak eta areto dantzak, pilates, sukaldaritza, oinarrizko informatika eta internet, sabel-dantza, judoa, haurrentzako antzerki tailerra eta euskal dantzak. Horrez gain, gauza berri bat ere izanen da; hots, defentsa pertsonalerako doako ikastaro bat, Aprodem elkartearekin batera antolatuta: Tratu Txarrak Jasotako Emakumearen Eskubideen aldeko Elkarte.

EUSKARAZKO IKASTAROAK

Euskara Zerbitzuak, bestalde, euskarazko hiru ikastaro antolatu ditu 2011/2012 denboraldirako: gurasoentzako euskara ikastaro bat, asteen hiru egunez, Artikako María Domínguez gizarte etxean emateko, 15:00etatik 16:30era; haurrentzako antzerki tailerra, ostiraletan, 17:30etik 18:30era; eta, euskal dantzei buruzko ikastaro bat, helduentzako, ostiraletan, 19:30etik 20:30era. Era berean, euskarazko igeriketa ikastaroak eskainiko dira.

> DANTZA
Ikasturte bukaerako ikuskizuna, sabel-dantzako taldeen eskutik

Artikako María de Maeztu Kultur Etxean Artikako eta Berriobeitiko sabel-dantzako taldeen ikasturte bukaerako jaia eginen da, datorren ekainaren 18an, larunbatean. Ikuskizuna 20:00etan hasiko da eta, besteak beste, Adsha taldea arituko da, "Gaua" lana aurkezteko.

Joan den maiatzean, bestalde, Kultur Etxean haur antzerkia, musika saioak eta pintura erakusketak izan ziren. Esaterako, maiatzaren 8an, Pizzicatto taldeak "SOS-bichos" antzezlanak eman zuten haurrentzako, eta 80 lagun inguru bildu ziren. Berriozarko Musika Eskolako Big Band taldeak eta konboek Kultur Etxea musikaz bete zuten, maiatzaren 27an emandako kontzertuaren bitartez. Maiatz guztian, gainera, erakusketa gelan, Maite Canoren "Colectivo H2O. Ura, guztiaren eta guztion funtsezko osagaia" izenburuko margolan erakusketa egon zen ikusgai.

>DIRU-LAGUNTZAK
8.989,59 euro, kultur, kirol eta gazte jardueretarako

Ametza Abesbatzak, San Isidro Errege Kabalkada Elkarteak, Berriobeiti Kirol Elkarteak, Larrantxa Elkarteak, Zindiku Elkarteak eta Berriobeitiko haur futbitoak 8.989,59,69 euroko diru-laguntza jasoko dute, urte osoan kultur, kirol eta gazteria arloko jarduerak egin ditzaten. Ametza Abesbatzak, zehazki, 2.552 euro jasoko ditu (eskatutakoaren % 63,8), irakasle profesional batek abeslariak ematen dizkien kantu eskolak ordaintzeko. Irakaslea, era berean, abesbatzako zuzendari lanetan aritzen da kontzertuetan. Berriobeiti Kirol Klubak 1.707,28 euro jasoko ditu (eskatutakoaren % 63,8), kirol materiala eta jantziak erosteko, Berriozarko kiroldegiko pista alokatzeko, futbolarien mutualitatearen aseguru ordaintzeko, arbitroei ordaintzeko eta lehiaketetan izena emateko. Berriobeitiko haurren futbito taldeak, bere aldetik, 1.687,90 euroko diru-laguntza jasoko du (eskatutakoaren % 63,8), kirol materialak erosteko, lokalak alokatzeko, aseguruetarako, garraio gastuetarako, arbitroei ordaintzeko eta lehiaketetan izen emateko. San Isidro Errege Kabalkadak 1.608, 71 euro jasoko ditu (eskatutakoaren % 63,8) Berriobeitiko Kabalkada antolatzeko. Zindiku Elkarteak 978,69 euroko laguntza hartuko du (eskatutakoaren % 63,8) musika-jarduera garatzeko material osagarria erosteko. Eta, azkenik, Larrantxa Elkarteak 455 euro jasoko ditu (eskatutakoaren % 70) monitoreei ordaintzeko eta, era berean, haurren artean, kultur eta aisia tailerrak egiteko behar den materiala erosteko.

>ABESBATZA LEHIAKETA

Estatuko Abesbatzen II. "A Capella" Lehiaketa arrakastatsua

Guztira, 853 lagun bertaratu ziren Estatuko Abesbatzen II. "A Capella" Lehiaketa-
ra. Maria de Maeztu Kultur Etxeko auditorioan egin zen, martxoaren 18tik 20ra.
Jendea oso pozik agertu zen, parte-hartzaileen maila ikusita, eta bereziki gozatu
egin zuen Britainia Handiko Voces8 ahots taldeak ekimenari hasiera emateko
eman zuen kontzertuarekin.

Lehiaketa Vocalia Taldea euskal taldeak irabazi egin zuen, banatu ziren hamaika
sarietatik sei eskuratu baitzituen: Entzuleen Saria; Polifoniako Lehen Saria;
Folklore arloko Lehen Saria; jatorrizko lekuko lanaren interpretazio onenarentzako
Saria; Zuzendari Onenari zegokion Saria eta puntuaketa orokor handiena eskuratu
zuen taldearentzako "A Capella" Sari Nagusia.

Nafarroako Abesbatzen Elkarteak eta Berriobeitiko Udalak antolatutik, lehiaketa
Espainiako Irrati Nazionaleko Radio Clásica-k grabatu zuen, eta irratiz emanen
dute.



>KONTZERTUA

Klabezin kontzertua Berriobeitiko elizan

Joan den apirilean, Eloy Orzaiz eta Johan Hoffmann
musikariek klabezin kontzertu bat eman zuten Berriobeitiko
elizan. Saiok ordubete inguru iraun zuen, eta jendeak
klabezinaren soinuarekin gozatu zuen; antzinako soinu-

tresna da, pianotik eta organotik
hurbil dagoena, baina soinuak
harparen, lautearen edo gitarra-
ren beraren hotsa ekartzen digu
gogora.

Ateneoak eta Berriobeitiko Udalak
antolatutik, kontzertuan lau
eskuko piezak jo zituzten; esatera-
ko, "Fancy for tow to play",
Thomas Tomkins-ena; "Muséte de
Choisi", "Muséte de Tavernide",
François Couperin-ena, eta
Amadeus Mozarten "Sonata Re
Maiorren, K.V. 123"; eta bestelako
piezak, bakarka. Orzaizek Johann
Jakob Froberger-en "Partita en do
menor" lana eman zuen, bai eta



"Pieces de clavecín, Libro 1: Tercer Ordre en do mayor y
menor", eta Hoffmannek, bere aldetik, Johann Sebastian
Bachen "Tocatta mi menorren" interpretatu zuen.
Eloy Orzaiz Berriogoitiko auzokidea da, eta, gaur egun,
piano-karrerarekin batera, goi-mailako klabezin-ikasketak
egiten ari da Groningen hirian, Holandan. Halaber, Trossin-
gen hiriko Hochschule für Musik Eskolan ari da (Alemania),
Johan Hofmann eta Marieke Spaans maisuen zuzendaritza-
pean. Hofmann, bere aldetik, klabezin-jole ospetsua da, eta
mundu zabaleko ikasleei ematen dizkie eskolak Amsterdam-
en eta Groningenen.

>KULTUR BIDAIK

Kultur ibilbidea Comillas eta Santanderren barrena

Udalaren Kultura Alorrak antolatutik, udaberri honetan
udalerriko erretiratuak eta langabeak Kantabriara joanen
dira. Txangoa, zehazki, ekainaren 18an izanen da, Berriobei-
tiko pilotalekutik goizeko 8:00etan abiatuta. Lehen geldial-
dia Comillasen egingen da; bisitariak herri eder hori ikusi
ondoren, Sobrellanoko Jauregian sartzeko aukera ere
izanen dute. 14:30ean, bazkaria egingen dute. Comillasen
bazkaldu ondoren, taldeak Santanderrera joko du, Magdale-
nako penintsulan trenez ibiltzeko; halaber, Sardinero eta
hiriko Itsasargia bisitatuko dituzte. 19:30ean abiatuko dira
Santanderretik etxera itzultzeko, eta Berriobeitira 22:30ean
iritsiko dira.



LIBURUTEGIKO PUBLIKOZKO UDAKO ORDUTEGIA (ARTIKA): 09:00etatik-15:00etara.



IPUIN-KONTALARIAK LIBURUTEGIAN. Artikako udal liburutegian lau ipuin-saio izan zi-
ren joan den martxoan eta apirilean. Martxoaren 16an eta apirilaren 6an gaztela-
niaz, eta martxoaren 30ean eta apirilaren 13an (irudian), euskaraz.

AGENDA

EKAINAREN 18A . IKASTURTE BUKAERAKO IKUSKIZUNA, SABEL-DANTZAKO TALDEEN ESKUTIK. Artikako Kultur Etxea. 20:00. **EKAINAREN, 19A. III. BIZIKLETA EGU-
NA.** Ibilbidea: Berriozar-Berriobeiti. Irteera: 10:30. **HERRIKO FESTAK. OTEITZAKO FESTAK;** ekainak 23-26. **LARRAGETAKO FESTAK:** abuztuak 6-7. **BERRIOGOITIKO FES-
TAK:** abuztuak 26-28. **ARTIKAKO FESTAK:** irailak 9-11. **AÑEZKARKO FESTAK:** irailak 2-4. **ELKARTEKO FESTAK:** irailak 9-11. **LOTZAKO FESTAK:** irailak 16-18. **ZENDEAKO
EGUNA.** Elkarre. Irailak 24.

>Hiritarren arreta

>MUSIKA ESKOLA

Musikaz beteriko 25. urtemuga

25. urtemugaren kariatz, Berriozarko Francisco Casanova Musika Eskolak zazpi kontzertu antolatu zituen ekainerako: hiru, musika-eskolan; hiru, Doneztebe plazan, eta bat, mendialdea eskolan. Musika Eskolako emanaldiak ekainaren 1ean, 3an eta 7an egin ziren, eta musika-hastapeneko ikasleak aritu ziren jotzen, bai eta tronpetak taldea ere, guztiak ere Berriozarko, Noaingo eta Iruñeko Joaquín Maya eskoletako ikasleak.

Doneztebe plazako kontzertuak ekainaren 8an, 12an eta 17an egin ziren, eta Berriozarko eta Joaquín Maya-ko Big-Band taldeak aritu ziren, eta, horiez gain, Berriozarko Doinua eta Oianondoa musika-bandak eta Berriozarko kolektiboak ere bai.

Azkenik, Berriozarko Musika Eskolaren 25. urtemuga ospatzeko kontzertua Mendialdea eskolan egin zen, ekainaren 15ean.

>HIRIKO KANPAMENTUAK

Udako kanpamentuak iritsi dira

Berribeitiko udalerriko 248 hurrek udako kanpamentuetan parte hartuko dute; aurtengoan, ekainaren 22tik irailaren 2ra egingen dira, bost txandatan banaturik. Gaztelaniazko taldeentzako jarduerak Berribeitiko erabilera anitzeko eraikinean egingen dira; euskarazko taldeentzako jarduerak, berriz, Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxean.

>Euskara



>KORRIKA

Korrika jendetsua

Berribeitiko auzokideek gogotik parte hartu zuten Korrika 2011n, bai eta euskararen aldeko lasterketaren inguruan antolatutako jardueretan ere. Ekitaldiak 15:30ean hasi ziren Artikako haur eskolan; 30rren bat hurrek, izan ere, Haus-



poa Elkartek antolatutako Korrika txikian parte hartu zuten. Ibilbidea egin ondoren, haurrak eta helduak Berribeitira joan ziren, Korrika 2011rekin bat egiteko. Lasterketa, zehazki, Markalaindik sartu zen Berriogoin

10:30ean, eta, handik aurrera, Berribeitiko Andrelopa kalea zeharkatu zuen Berriozarrera jotzeko. Aurtengoan, Korrikaren bi kilometro erosi ziren: bata, Udalak berak, eta bestea, Hauspoa Elkartek eta udalerriko hamaika establezimenduk ordaindua

Ahaleginaren ondotik, parte-hartzaileek txokolate-jana izan zuten Berriogoin, eta haietako batzuk, ondoren, Aitzoaingo Kontzeju Etxeak prestatutako otamenera joan ziren.



>EUSKARAREN III. EGUNA

Giro ederra Euskararen III. Egunean

Euskara hilaren 11n Larragetan ospatu zen jai handiaren ardatz nagusia izan zen, Euskararen Eguna egin baitzen. Izan ere, herrira etorri ziren Berribeitiko udalerriko auzokideek gogotik gozatu zuten, hamaika ekitaldi antolatu baitziren goiz eta arratsalde; besteak beste, Kontzejuen arteko Herri Kirol Txapelketa, herri dantzak, herri bazkaria, puzgarriak eta haur antzerkia.

Aurreko astean, gainera, hainbat ekitaldi egin ziren: euskal dantzen ikastaro bat, haur eta helduentzako, Artikako María Domínguez gizarte etxean, 30 lagun aritu zirela; jostailuak birziklatzeko tailerra, Larragetako Kontzeju etxean, 20 haurrentzako; eta, Zendeako irudiei buruzko argazki erakusketa bat, M^a Eugenia Delgadok egindakoa.

>SOLASALDIA

Nola lagundu gure seme-alaba euskaldunei etxean

Joan den martxoaren 25ean, Iñaki Eizmendi pedagogoak solasaldi bat eman zuen, gai hau joratzeko: euskararen erabilera familian. Solasaldia Artikako Maria de Maeztu Kultur Etxean egin zen, eta 20 bat guraso joan ziren, beren zalantzak eta kezak argitzeko: esate baterako, nola lagundu seme-alabei eskolako lanetan, gurasoek euskaraz ez badakite.

>ZENDEALDIA

80 lagunetik gora, Zendealdian

Zendealdia Zendeako herrietan barrena urtero egiten den ibilbidea da eta, aurtengoa, 80 lagun baino gehiago bildu ziren; batzuk Berriozarkoak eta Txulapaingoak. Euskara Zerbitzuak ontzat jo du herri mugakideetako jendea etorri izana eta, aldi berean, jende guztia animatu du hurrengo edizioetan parte hartzera. Txangoa, joan den apirilaren 16an egin zen, eta iazko ibilbide berbera egin zuten, baina aurtengoa, alderantziz; hau da, Artikatik abiatu eta Berriobeitin bukatu zen. Jendeak oso ongi hartu zuen ibilbidea aldatu izana, politagoa izan baitzen. Eguraldiak, gainera, Zendealdia lagundu zuen: goiz erdian, Larragetan gelditu ziren, gosari legea egiteko.

"IBILALDIAK GURE ZENDEAN"

Ekainaren erdialdean, bestalde, Euskara Zerbitzuak bilera bat egin zuen, 2011-2011 denboraldiko "Ibilaldiak gure Zendea" programa prestatzeko. Aurreko urteetan bezala, irteerak Ezkidi, Eltxumendi eta Ezkaba mendira izanen dira, baina bestelako ibilbide erakargarriak hartuta; esaterako, herri galduak eta arkeologia-interes handiko bazterrak bisitatuko dira. Ibilaldion helburua da auzokideei Zendea ezagutzeko aukera ematea, giro ezin hobean, eta, aldi berean, iraganeko arkeologia-aztarnak aurkitzea.

>UDALEKUAK

Euskarazko udalekuen arrakasta handia

Nafarroako Udalek antolatzen dituzten Udalekuek sekula baino arrakasta handiagoa izan dute aurtengoa. Esaterako, bete egin dira Udalak eskaintzen dituen hamar tokiak, eta, lehen aldiz, haur batzuk itxaron-zerrendan gelditu dira. Udalekuak uztailaren eta abuztuaren egiten dira, eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 6. maila arteko ikasleei zuzenduta daude, bai eta DBHko 1. eta 2. mailan ari direnei ere. Hainbat helburu dituzte: haurren artean euskararen erabilera bultzatzea eta Nafarroako hizkuntza-eremu desberdinetako haurren arteko harremanak sustatzea.

>Kirolak

>KIROLAREN EGUNA

200etik gora lasterkarik Kirolaren egunean parte hartu zuten

Berriobeitiko Udaleko XI. Herri Lasterketak 200 lasterkari baino gehiago bildu zituen, joan den maiatzaren 29an. Gontzal Sanz (La Blanca) atleta izan zen irabazlea, gizonen proba absolutuan; emakumezkoetan, berriz, irabazlea Tuterako auzokide bat izan zen; hots, Aicha Bani, jatorriz marokoa-rra, Canal Isabel II klubekoa. Lasterketaren ondotik, Berriobeitiko haur taldeko hogeit hamar neskatiko-mutikok judo erakustaldia egin zuten, herriko pilotalekuan, gurasoen begiradaren aurrean. Aurtengoa, bestalde, Udalak eskaladan aritzeko horma mugikor bat paratu zuen herrian, bertaratu ziren guztiak eskalada munduan hasteko aukera izan zezaten, betiere monitore adituek lagunduta.

>VERANO

Igeriketa ikastaroak eta doako jarduerak Berriobeitiko igerilekuan

Berriobeitiko kirol instalazioetan, ninientzako, haurrentzako eta helduentzako igeriketa ikastaroak eskainiko dira uda honetan, bai eta aquagym-aquaerobic ikastaroak ere, euskaraz (haurretan) eta gaztelaniaz. Ikastaroak hamar saiokoak izanen dira, bi txandatan egiteko: uztailaren 19tik abuztuaren 1era, eta abuztuaren 8tik 22ra. Helduentzako ikastaroetan, erroldatuek 25 euro ordainduko dute, eta ez-erroldatuek, aldiz, 50. Haurretan, berriz, erroldatuek 20 euro ordainduko dute, eta ez-erroldatuek, 40.

Lehen txandan aritzeko izena uztailaren 11tik 15era eman beharko da, eta, bigarren txandarako, berriz, abuztuaren 1etik 5era.

ASTEAZKENETAN, DOAKO JARDUERAK

Uztailaren 20tik abuztuaren 17ra, bestalde, asteazkenero, haurrentzako jarduerak egingen dira, guztiak ere doainik.

Egitaraua

Uztailaren 20a: haur ginkana (17:30etik 18:30era)

eta G.A.P. uretan (18:30etik 19:30era)

Uztailaren 27a: uretako jokoak (17:30etik 18:30era)

eta aquarunning (18:30etik 19:30era)

Abuztuaren 3a: igeriketa sinkronizatua (17:30etik

18:30era) eta uretako flamenkoa (18:30etik

19:30era)

Abuztuaren 10a: aquavoley (17:30etik 18:30era) eta

aquagym (18:30etik 19:30era)

Abuztuaren 17a: ur-jokoak-buzzea (17:30etik 18:30era) eta aquaerobic (18:30etik 19:30era).

ARTIKAKO KIROL HIRIAK 2011/2012 DENBORALDIKO IKASTAROAK PRESTATZEN DIHARDU

Gesport Artikako Kirol Hiria kudeatzeaz arduratzen den enpresa da eta datorren denboraldirako kirol egitaraua azkentzen ari da. Instalazioetan haurrentzako eta helduentzako jarduerak eskainiko dira, bai uretan bai lehorrean (erabilera anitzeko lau gela daude, haietako bat berariaz spinning egiteko). Erabiltzaileek udazkeneko ikastaroari buruzko aurrerapen bat izateko, udan jarduera batzuk egingen dira. Abonuen prezioak erabat daude finkatuta, baita ikastaroen prezioak ere; den-denak ikusgai daude Berriobeitiko kirol instalazioen webgunean:

www.piscinasmunicipalesberrioplano.es, Artikako Kirol Hiria atalean. Inork argibideak jaso nahi baditu, badago webak eskaintzen duen aldizkari elektronikoa izena emateko aukera (nobedadeen atala). Artikako Kirol Hirian abonatzeko hainbat abantaila ditu; haietako bat da matrikula doakoa izatea. Gainera, hala Berriobeitiko kiroldegiko abonatuak nola Artikakoek bi instalazioetara sartzeko aukera izanen dute; dena den, Berriobeitiko dagokienez, erroldatuek baizik ez dute parada hori izanen.

>BI GURPILEN GAINEAN

Berriozar-Berriobeitiko III. Bizikleta Eguna ekainaren 19an egingen da

Hirugarren urtez jarraian, Berriozarko eta Berriobeitiko Udalek Bizikleta Eguna antolatu dute. Egia esan, egun hori oso ezaguna egin da txirindularitza maite dutenen artean. Hitzordua ekainaren 19an izanen da, igandean. Martxak bi bide izanen ditu: laburra, 11 kilometrokoa, eta, luzea, 14koa. Goizeko hamar t´erdietan abiatuko da Berriozarko Eguzki plazatik, eta Berriozar, Artika, Aitzoain, Berriobeiti, Aitzoain eta Berriozar zeharkatuko ditu. Behin ibilbidea egin ondoren, bizikleta bat zozketatuko da, eta parte-hartzaileei opari txiki bana emanen zaie. Izen-ematea irteeran bertan egin beharko da, edo bestela, astebete lehenagotik aurrera, Berriozarko kiroldegian.

